

KARMELE MUÑO A ARRIGAIN andreak, Bermeeko Udaleko jarduneko idazkariak,

ZIURTATZEN DOT:

2013ko apirilaren 15ean **Tokiko Gobernu Batzarrak** erabagi hau agindu dauela:

14.- ESKUALDEKO ENPLEGU PLANANEKO “KALITATE, INGURUMEN ETA LANEKO OSASUN SISTEMETAKO ZUZENDARIEN PRESTAKUNTZARAKO PROGRAMA” IKASTAROA KONTRATATZEKO ENPRESEA ESLEITZEA.

Xedea

Eskualdeko Enplegu Planeko “Kalitate, Ingurumen eta Laneko Osasun Sistemetako Zuzendarien Prestakuntzarako Programa” ikastarorako enpresea kontratatzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2012eko ekainaren 7an Merkataritza, Sustapen eta Turismoko batzorde informatiboan, baldintza administratibo eta teknikoak onartu ziran eta esleipen jardunbideari hasikerea emon jakon.

Bigarrena: AENOR, EUSKALIT eta DAITEKE enpresei kontratazinoan parte hartzeko gonbitea bialdu jakon.

Hirugarrena: AENOR eta EUSKALIT enpresek, euren eskaintzea bialdu dabe.

Argudioak

Lehenengoa: Hautagai guztiek **A** kartazala “**Kontratatzeko gaitasuna eta kaudimena**” aurkezten dabe eskatutako dokumentuakaz.

Bigarrena: **B** kartazala “**Formula matematiko bidez kuantifikatu ezinezko erispideen dokumentazinoa**” baloratzen da:

ENPRESEA	Baldintza teknikoen pleguan eskatutakoagazko egokitzapena	Prestakuntza programearen proposamena	Prestakuntza ekintzea garatzeko erabiliko dan metodología	Parte hartzaileek ebaluatzeko proposamena	GUZTIRA
	(20 puntu)	(20 puntu)	(15 puntu)	(10 puntu)	(75 puntu)
AENOR	20	30	15	10	75
EUSKALIT	20	25	10	10	65

Hirugarrena: **C** kartazaleko **PROPOSAMEN EKONOMIKOAK** eta euren puntuazinoa honakoa da:

ENPRESEA	Proposamen ekonomikoa BEZ KANPO	PUNTUAZINOA (25 puntu)
AENOR	52.000,00	18,05 puntu
EUSKALIT	49.500,00	25 puntu

Laugarrena: B kartazaleko puntuazioa gehi C kartazaleko puntuazinoa honako hau da:

ENPRESEA	B kartazala Proposamen teknikoa	C kartazala Proposamen ekonomikoa	GUZTIRA
AENOR	75	18,05	93,05
EUSKALIT	65	25	90

Bosgarrena: Errekerimentua egin ondoren, dokumentazinoa konpultsatu dau enpreseak.

Erabagia

Goian aitatutako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Tokiko Gobernu Batzarrak:

BAKARRA: **AENOR** enpreseari, “Kalitate, Ingurumen eta Laneko Osasun Sistemetako Zuzendarien Prestakuntzarako Programa” ikastaroa emoteko kontratua **52.000 euro + 6.500 eurotan** esleitzea.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, alkate jaunaren aginduz eta onetsiaz, ziurtagiri hau idazten dot, eta bere xedea dan erabagia onartu barik dagoan akta batean dagoala adierazoten deusut, behin betiko onespeneraren menpean dagoela ohartarazota, Bermeon, 2013ko apirilaren 18an.

ONETSIA
ALKATEA